

Santarik tanta... Berdintasunaren olatua!

BERDINTASUNERAKO ADMINISTRAZIO-UNITATEA / UNIDAD ADMINISTRATIVA DE IGUALDAD • OTSAILA / FEBRERO • IV

¿Tienen las mujeres que estar desnudas para entrar en el Met. Museum? Menos del 5% de los artistas en las secciones de Arte Moderno son mujeres, pero un 85% de los desnudos son femeninos.

Guerrilla Girls



"La habitación azul". Suzanne Valadon, 1923

EDITORIAL

¿DÓNDE ESTÁN LAS MUJERES EN EL ARTE?

¿Tienen las mujeres que estar desnudas para entrar en el Met. Museum? Menos del 5% de los artistas en las secciones de Arte Moderno son mujeres, pero un 85% de los desnudos son femeninos. Es el lema del cartel que colocaron las Guerrilla Girls en 1989 frente al Metropolitan Museum de Nueva York.

Este grupo lo constituían mujeres de diferentes edades y procedencias étnicas; no sólo artistas (pintoras, escritoras, directoras de cine...), sino también comisarias de exposiciones e historiadoras del arte. Ocultaban sus rostros con máscaras de simios inspiradas en el personaje de King Kong, que utilizaban como símbolo de dominio masculino, y en sus intervenciones públicas utilizaban como pseudónimo los nombres de artistas fallecidas como Frida Kahlo, Eva Hesse o Lee Krasner, reivindicando así los logros que

aquellas habían conseguido. Compartían un **sentimiento de frustración al comprobar que a finales de siglo XX las diferencias entre los sexos persistían y las mujeres artistas continuaban sin tener un verdadero reconocimiento.**

Mediante ésta y otras protestas lo que **pretendían conseguir era que el arte de museos y galerías mostrara por fin una imagen real de la historia y del actual panorama cultural**, y dejara de ser un inventario de contribuciones masculinas.

Las reivindicaciones de las Guerrilla Girls siguen aún vigentes, y es que en la actualidad **la presencia de las artistas en museos y galerías sigue siendo muy inferior** a la de los hombres. Según el estudio *"Mujeres y Cultura: Políticas de Igualdad"* publicado por el Minis-

terio de Educación, Cultura y Deporte, la presencia de artistas en galerías supone menos del 15%, y su presencia es aún más restringida en exposiciones individuales en museos y centros de arte: el 10%. Además, en sus colecciones, su autoría oscila entre el 25% y el 10%.

En este cuarto número de Tanttaka, queremos **reflexionar acerca de la situación de las mujeres en el sistema del arte y sobre el arte feminista.** Para ello, recogemos las aportaciones de una experta en la materia, y os mostramos algunos datos que reflejan la desigual presencia de las mujeres en el arte, además de proponeros una lectura que proporciona una mirada crítica y feminista a diferentes iconos culturales de nuestra época. También podréis encontrar la opinión de dos personas del Departamento sobre el reconocimiento de las mujeres artistas.

“Kultura androzentrikoa da Euskal Herrian eta beste edozein tokitan”

AINHOA GÜEMES

KAZETARITZAN LIZENTZIATUA ETA ARTE EDERRETAN DOKTOREA. GAUR EGUN BERDINTASUN TEKNIKARI EGITEN DU LAN LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAN. 2011. URTETIK NAIZEN IRITZI ATALEAN KOLABORATZEN DU, “LIBRE, TROPIKALA ETA FEMINISTA” BLOGEAN.

Zer ulertzen da arte feminista aipatzen denean?

Lehendabizi, gustatuko litzaidake argitzea, gaineratik bada ere, gai konplexua baita planteatzen ari garena, zer nolako erlazioak dauden sorkuntza eta feminismoaren artean. Alde batetik, artea esan dezakegu diziplina bat dela, ezagutzara hurbiltzen gaituena, filosofia eta zientzia jakintzarako diziplinak diren bezalaxe, hau da, bizitzaren kaosaren aurrean ordena pixka bat jartzen laguntzen diguten ikuskerak dira. Artearen, zientziaren eta filosofaren aktuazio planoak ez dira berak, hala ere, bai abiapuntuak bai helburuak ezberdinak izanda, baliotsuak dira hiru diziplina handi hauek mundu ikuskera osoago bat irudikatu dezagun.

Artearen plano estetikoa da, afektuak eta sentsazioak dira gure lan egiteko tramankuluak; horien bidez makinak eta kontzeptuak asmatzen ditugu. Azken finean, sorkuntzaren bidez eta bereziki arte-lanak bideratzen dituen esperimentazioari esker mundua ez bakarrik ulertu, goitik behera eraldatu dezakegula dudarik ez dago.

Bestetik **ARTISTA BATEK, AKTIBISTA FEMINISTA DEN HEINEAN, SORMENA BALIATUKO DU MUNDUA ZENTZU BATETIK ETA EZ BESTETIK ERALDATZEKO.** Haraway zientziaren filosofo marxista eta feministak dioen bezala, ikuskera guztiak dira partzialak, kokatuak, baita teoria kritika feministarena ere, noski. Izan ere, ezagutza beti kokatua da, eta ikuspuntu bat edo beste bat erabiliz, artaziak handik edo hemendik sartuz, emaitza baldintzatzen ari gara; mundu jakin bat edo esentzian guztiz ezberdina den beste mundu bat eraiki dezakegu, hor dago kokka.

Nire aburuz, **feminismoaren praktika politikotik saiatzen ari gara, mundua birsortzeko bidean, gizakien diferentzia oro baikortasunetik baloratuz, botere harremanen eta afektuen artean ore-**



ka bat bilatzen. Guzti-guztion ahotsak, pertzeptuak, beharrak, amildegia, malaletxea eta desirak plano estetikoan kokatuz eta nahastuz ziur gaude mundu politago bat irudikatuko genukeela.

Zein dira emakume artistek bizi dituzten desberdintasun nagusiak?

Askotan entzun behar izan dugu subjektu zitalak, pobreak, emakumeak, amak, zoroak, beltzak, disidenteak, artista malditoak, putak ez direla gizarte honen motorrak, ez sortzaileak ez asmatzaileak baizik eta entzule pasiboak, askoz jota erreproduzioaren eta bestearen (gizon boteretsuaren) behar afektiboen sostengua. Badirudi gizon aberats eta zurien eskuetan dagoela eraikuntza handien eta esperimentazio guztien ardura, eta gainera biologikoki horretarako presatatu eta gai direla. Horregatik, emakume artista, **emakume asmatzailea eta sortzailea marjinatorik dago; eszena zentraletik atera nahi izan gaituzte, eta hori kultura guztietan ematen da, kultura androzentrikoa delako Euskal Herrian eta beste edozein tokitan.**

Arte feminista erabil daiteke kolokan jartzeko mendeetan onartua izan den errepresentazio klasikoa eta gaur egun oraindik inposatua eta onargarria den narratiba. Arte feminista plazer desbideratua da, gehiegizkoa. Arte feminista ez da

erosoa, ez lasaigarria, gure nahiari eta gure mundu ikuskerari aukera bat eman ondoren barealdi tenkatu bat datorrela konturatzen gara. **FEMINISTA ETA ARTISTA IZATEAK ASKATASUNAREN ETA BEHARRAREN ARTEKO LEHIA PLANTEATZEN DIGU.**

Emakume artistek zentsura jasaten dugu; benetan oso indartsua izan behar zara zure helmugatik ez urruntzeko, aurrera segitzeko, zutik mantentzen den amazona zoro horietako bat izan behar zara kulturaren bidez ikasitako guztia hankaz gora jarri eta koordenatu berriak segituz beste mundu posible bat sortzeko...

Zer egin dezakete erakundeek artean berdintasuna sustatzeko?

ERAKUNDEEK DISKRIMINAZIOA ETA ZENTSURAREN KONTRA LAN EGIN BEHARKO LUKETE.

Zentsura ez da zerbait abstraktua, pertsona jakin batzuek edota erakunde batzuek beste pertsona batzuk bistatik kentzeko erabiltzen den taktika itsusia eta injustua da, etikoki deitoragarria. Zilegatasuna kendu egiten digute (edo saiatzen dira bederen; zorionez ez dute beti lortzen). Erakundeetan, arduradunek argi izan beharko lukete zein kultur eredu aldarrikatzen ari den: diferentziak positiboki baloratzen dituen edo errealtate itsusi bera erreproduzitzen laguntzen duen eredu. Plano estetikoa logika propioz funtzionatu behar duen plano izanda, erakundearen laguntza materiala eta ekonomikoa behar du.

Gure aldetik, **emakume artistek jakin behar dugu uztartzen politikaren zurrunbiloa artearen iraunkortasunarekin.** Artearen esparruari, oro har, autonomia gehiago aitortu behar diogu, sortzaileen jarduna kultur balioek eta egoera politikoak gehiegi baldintzatzen dutelako. Erakundeek sustatu behar dute berdintasuna, hau da, artearen onura eta ikuskera berriak jende gehiagorengana irits daitezela.



EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PRESTAKUNTZA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen arabera, administrazioek neurri egokiak hartu behar dituzte beren langileei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan **oinarrizko prestakuntza** eskaintzeko, eta **ardura politikoak duten pertsonak sentibilizatzeko**.

Betebehar horri jarraitzeko eta saileko langileen eskariei erantzuteko asmoz saileko Berdintasunerako Administrazio-Unitateak 2015. urtean 3 ikastaro antolatu zituen:

“Administrazioak zergatik egin behar du lan emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde?” Saileko kargudunei zuzendutako prestakuntza saioa izan zen. Horren helburua zen ezagutzea saileko esku-hartze arloan ematen diren desberdintasunak eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako esku-hartze publikoa ulertzeko beharrezko elementuak, eta hartu zuten parte 9 gizon eta 4 emakume kargudunek.

Horretaz gain, langileentzako bi ikastaro prestatu ziren: **“Emakumeen eta gizonen berdintasunerako oinarrizko ikastaroa”**

eta **“Nola baloratu genero-ikuspegia programa eta proiektuetan?”**, eta horietan, guztira, 23 emakumek eta 12 gizonek hartu zuten parte.

2016. urteari begira, jada oinarritzko beste ikastaro bat egin da urtarilean zehar, eta aurreikusita dago beste zenbait egitea, adibidez, maiatzeko **“Cómo valorar la integración de la perspectiva de género en programas y proyectos”** ikastaroa antolatu dugu. Ikastaroen inguruan informazio gehiago behar izanez gero, jarri kontaktuan saileko Berdintasunerako Administrazio-Unitatearekin.

ZUREA DA HITZA!

Zure ustez, emakume artistak gizon artistak beste aitortzen dira?

Historian zehar hainbat kalitate handiko emakume artista izan dira, hala ere, ez dira arte- testuliburuetan agertu. Horrek pentsarazi diezaguke ez direla emakumezko artistak existitu, edo gizonetzkoak baino maila txikiagokoak izan direla. Era berean, emakumeak artearen kudeaketatik eta kritikatik kanpo geratu dira. Gaur egun ere, museo



*Eva Martín Ugarte
Liburutegi Teknikaria*

nagusiek oso erakusketa gutxi antolatzen dituzte emakumeen artelanak ezagutarazteko.

Museoen zeregin hezitzailea kontuan hartuz, uste dut, bai erakunde publikoek, bai museoek, ekimen serioagoak egin beharko lituzketela desberdintasun hori gainditzeko.

Historian zehar beti izan dira emakume artista handiak arte-diziplina desberdinetan, baina haien lana ez da behar bezala baloratua eta aitortua izan, sarritan gizonetzkoen itzalpean geratu direlarik. Benetako artista “titulua” gizonek izan dute, eta emakume artistak baztertuak izan dira, ia ikusezinak bihurtzeraino. Alabaina, objektu gisa sarritan irudikatu dira bai koadro, eskultura edota gainerako arte adierazpideetan.



*Roberto Kerexeta
Artxibo, liburutegi eta dokumentazioko Teknikaria*

mugimendu feminista sendotzearekin batera, emakume artisten presentzia gizartean nabarmen igo da, bai irakaskuntza ez-arautuan, bai goi-mailako ikasketetan (arte ederrak, arkitektura, literatura, dantza...). Horrela bada, zenbait emakumek artista “uniibertsala”-ren aitortza eskuratzea lortu dute (Cristina Iglesias, Menchu Gal, Dora Salazar, Naia del Castillo...), baina oraindik gutxiegi dira. Berdintasunaren bidean, oraindik bide luzea egin beharko da gizonetzko artistek, gizartean oro har, daukaten “aitortza-maila” eskuratzeko.

Bestalde, XX. mendearen erdialdetik aurrera,

“De qué se ríe la Gioconda? o Por qué la vida de las mujeres no está en el arte”

es un libro ameno, simpático y cargado de ironía en el que **Clara Obligado** comenta algunos de los hitos literarios (Cortázar, Neruda, Tolkien, Platón, etc...) así como iconos culturales y cinematográficos (Escarlata, Peter Pan, Superman, Drácula o la Gioconda) que cautivaron su imaginación y marcaron positivamente distintas etapas de su vida. Ahora, desde su madurez, ve con una perspectiva muy diferente todos aquellos referentes y descubre destellos de machismo en todos los ámbitos. Lejos de provocarle rencor, hace una reflexión que invitará a esbozar una sonrisa.



Ed: Temas de hoy, 2006. Castellano.

Ba al dakizu?

SITUACIÓN DE LAS MUJERES EN LAS ARTES VISUALES

Según el estudio **“Mujeres y Cultura: Políticas de Igualdad”** (Ministerio de Educación, Cultura y Deporte) que refleja el desarrollo de las políticas de igualdad en la cultura:

- En la actualidad las **mujeres son la mayoría del público** que visita exposiciones y colecciones de museos.
- Las **mujeres son el 65% de las personas tituladas en Bellas Artes y el 74% en Historia del Arte.**
- Ellas **superan el 80% en el organigrama de museos y centros de arte.**
- Sin embargo, en cuanto al reconocimiento que reciben del Estado en forma de premio:

...**Premio Nacional de Artes Plásticas**, en 18 ediciones sólo **4 artistas mujeres** han sido premiadas.

...**Premio Nacional de Fotografía**, en 18 ediciones **3 mujeres** premiadas.

...**Premio Príncipe de Asturias de las Artes**, convocado desde 1982: **ninguna** artista plástica premiada.

• En el **mercado artístico** la presencia de artistas españolas en **galerías** supone menos del **15%**

• En las **colecciones permanentes de los museos de arte contemporáneo** figuran un **13%** de mujeres artistas.

